

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2018KO MARTXOA


Euskal AEko industria-jarduerak % 3,6 egin zuen gora 2018ko martxoan

Industria-ekoizpeneko indizeak % 3,6ko gorakada izan du 2018ko lehen hiruhilekoan

Euskal AEko industria-ekoizpenak % 3,6 egin zuen gora 2018ko martxoan, 2017ko hil beraren aldean, lan-egutegiko baldintza homogeenetan, Eustatek prestatutako datuen arabera. 2018ko lehen hiru hileetako balantzea % 3,6ko hazkuntzarekin itxi da, 2017ko aldi beraren gainean.

Aurreko hilearekin alderatuta, 2018ko otsailarekin, Euskal AEko industria-ekoizpenak % 1,3 egin zuen gora, urtarotako ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%) Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2018ko martxoko indizeak, 2017ko martxoaren aldean, bilakaera positiboak izan ditu, industria-sektore handi guztietan. *Energiak* % 5,0 egin du gora, *Tarteko Ondasunek*

% 4,6, *Ekipoko Ondasunek* % 2,6 eta *Kontsumo Ondasunek*, orokorrean, % 3,2. Horien artean, *Kontsumo Ondasun Iraunkorrek* zehazten dute hazkuntza-maila (% 9,8 hazi dira); izan ere, *Kontsumo Ondasun Ez Iraunkorren* gorakada askoz ere motelagoa izan da (% 0,9).

Hilabeteen arteko aldakuntzak –2018ko martxokoa 2018ko otsailaren aldean– bilakaera desberdinak izan ditu industria-sektore handietan. *Energiak* % 5,0 egin du behera, *Ekipo Ondasunek* % 2,1 gora, *Tarteko Ondasunek* % 2,0 gora eta *Kontsumo Ondasunek*, oro har, % 1,5 gora; izan ere, *Kontsumo Ondasun Iraunkorrek* % 2,7 egin dute gora eta *Kontsumo Ondasun Ez Iraunkorrek* % 1,0.

Euskal industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2018ko martxoan, urte arteko aldakuntzak kontuan hartuta, hazkuntza esanguratsuenak dituztenak honako hauek dira: *Makinak eta ekipoa* % 7,2; *Kautxua eta plastikoa* % 5,8; eta *Garraio-materiala* % 5,5.

Ordea, beherakada egon da *Zurgintza, papera eta arte grafiko*en sektorean (urte arteko atzerapena % 1,4koa da).

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	2,5
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	4,9
09 - Kautxua eta plastikoak	5,8
13 - Makineria eta tresneria	7,2
14 - Garraio-materiala	5,5
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	1,1
12 - Material eta tresneria elektrikoa	4,4
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-1,4

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurralde historikoaren arabera, martxoan industria-ekoizpenaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa da Gipuzkoan, % 8,7 hazi baita, bai eta Araban ere (% 4,4 hazi da), baina beherakada izan du Bizkaian (% 1,7ko beherakada).

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2018ko Martxoa

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Mar2018 / Mar2017	A(Mar2018) / A(Mar2017)(*)	Mar2018 / Ots2018	Ots2018 / Urt2018
Indize orokorra				
Euskal AE	3,6	3,6	1,3	-0,2
Araba/Álava	4,4	4,0	2,5	-2,7
Bizkaia	-1,7	0,2	-1,1	2,1
Gipuzkoa	8,7	7,0	3,0	-1,0
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	3,2	-0,5	1,5	1,5
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	9,8	2,1	2,7	2,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,9	-1,5	1,0	1,2
Ekipo-ondasunak	2,6	3,7	2,1	-4,1
Bitarteko ondasunak	4,6	3,7	2,0	-0,3
Energia	5,0	8,0	-5,0	9,5

(*) 2018ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2017eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62